

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2146

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita 2020. urtean memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legeak erakunde honi esleitzen dizkion helburuen artean dago, besteak beste, euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermearen eta bizikidetzaren demokratikoaren oroimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa diseinatzeko, sustatzeko, garatzeko eta gauzatzen parte hartzea.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak memoria berreskuratze eta iraunarazteko politika publikoa gauzatu nahi du Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren bitartez, eta, hartara, balio eta printzipio demokratikoak berreskuratu, haietan oinarritzen baita gaur egungo gizartearen bizikidetzaren. Helburu nagusia da betirako ohoratu eta berreskuratzea Gerra Zibilaren, diktadura frankistaren, ETAren terrorismoaren eta legez kontrako kontraterrorismoen biktima guztiak. Eta, haiekin batera, beren senideak ere bai.

Lege hauek eratzen dute deialdi hau hartzen duen esparru juridikoa: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluak (azaroaren 11ko 1/1977 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legeak.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak Dirulaguntzen 2017-2020 Plan Estrategikoa dauka martxan, zuzendariaren 2020ko otsailaren 13ko Ebazpenaren bidez eguneratua. Horren barruan, diruz lagundu daitezkeen adarretako bat da, hain zuzen ere, deialdi hau, zeinak memoria demokratikoari buruzko funts publikoak sortzea baitu helburu.

Era berean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Estatutuen 11.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuak onartzen ditu estatutu horiek), Institutuko zuzendariari dagokio laguntzak eta dirulaguntzak erregulatzea, deitzea eta esleitzea.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da dirulaguntza-deialdia egitea, 2020. urterako, Euskadiko memoria demokratikoa Gerra Zibiletik gaur egunera arte berreskuratze asmoa duten liburu berriak argitaratzeko eta zinemarako, telebistarako edo/eta plataformak digitalerako dokumentalak egiteko.

2. artikulua.– Epealdia.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduerak azken muntaketa edo/eta postprodukzio fasean egon beharko dira, dokumentalen kasuan, eta azken edizio edo/eta maketazio fasean, liburuen kasuan, eta, betiere, 2020ko abenduaren 31n amaituta egon beharko dute.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Bi kasuetan (fikziozkoak ez diren liburuak eta dokumentalak), memoria historikoa berreskuratzearekin edo/eta oraintsuko memoriaren egia argitzearekin lotutako gaiak jorratu behar dituzte, giza eskubideen defentsaren ikuspegitik, eskubideon urraketen salaketa egiteko. Gainera, jarduerak EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean edo bietan egin beharko dira.

1.– Dokumentalak.

– Dirulaguntza jaso ahal dute, muntaketa edo/eta postprodukzio azken fasean dauden dokumentalak.

– 20 minutuko iraupena izango dute, gutxienez.

2.– Fikziozkoak ez diren liburuak.

– Testua berria izan behar da eta edizio edo/eta maketazio azken fasean egon behar da.

– Amaierako testuak 100.000 karaktere izango ditu gutxienez.

4. artikulua.– Zenbatekoa.

1.– Deialdi honetara, hirurogeita hamabost mila (75.000) euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako partidaren kargura.

2.– Gehienez ere, liburuen kasuan bost mila (5.000) eurokoa izango da dirulaguntza, eta hamar mila (10.000) eurokoa ikus-entzunezkoen kasuan, proiektu bakoitzeko.

3.– Laguntzek bete egin beharko dute Batzordeak 2013ko abenduaren 18an onartutako 1407/2013 (EE) Erregelamendua, de minimis laguntzei Tratatuen 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa (EBEO, L 352. zk., 2013-12-24koa). Laguntza hauek de minimis motako laguntzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko 200.000 euroko kopurua, aurreko bi ekitaldi fiskaletakoa eta aurtengoa batuta. Ulertzen da muga horretatik beherako dirulaguntzek ez diotela merkatuari eragiten eta ez dutela lehiakortasuna faltsutzen; horren ondorioz, ez dira sartzten Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107.1 artikulua aplikazio-eremuan.

4.– Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza eskatzen duen erakundeak edo pertsonak aitortu egin beharko ditu ekitaldi fiskal honetan jaso ditzakeen beste laguntza batzuk eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotakoak.

5. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Ebazpen honetan aurreikusitako laguntzak ematean lehiaketa-prozedura aplikatuko da.

2.– Ondore horietarako, aurkeztu diren eskabideak alderatu beharko dira, horien artean lehenetsunak ezartzeko. Deialdi honen 14. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Hala, hautaketa-fasean deialdi honen 14. artikuluan ezarritako gutxienerako puntuazioa eskuratu duten horien artean balorazio handiena dutenei emango zaie laguntza, deialdi honetara esleitutako kre-

dituak agortu arte, hala badagokio. Eta behin kreditua agortu denean, salbuespenez, eskumena duen erakundeak dirulaguntzaren onuradunen artean prorrateatuko du, gutxieneko puntu kopurua lortu duten aurkeztutako eskabide guztiei laguntza emateko, deialdi honen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa zehaztea.

1.– Laguntza bakoitzari –hots, hautatutako proiektu bakoitzari– dagokion zenbatekoa zehazteko, dirua proportzionalki banatzeko sistema bat aplikatuko da. Horren arabera, proiektu bakoitzean diruz lagunduko den zenbatekoa zehaztean, balorazio-fasean balorazio-irizpideak aplikatzean eskuratu dituzten puntuazioak edukiko dira kontuan. Puntuazioa portzentaje bihurtuko da, eta portzentaje hori aplikatuko da, hain zuzen ere, aurkeztutako aurrekontuan.

2.– Emango diren laguntzak ez dira eskatutako zenbatekoa baino altuagoak izango, ezta 4.1 artikuluan ezarritako gehienez ezarritako 5.000 euro argitalpenen kasuan eta 10.000 euro ikus-entzunezko proiektu bakoitzeko.

7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak badira, betiere dekretu honen 5. artikuluan ezarritako epean egiten badira, eta justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindu badira. Zehazki, honako hauek:

– Dokumentalak:

Film laburren ekoizpen-kostuak diruz lagundu ahal izango dira, film baten kostuaren aintzatespena eta ekoizlearen inbertsioa arautzen dituen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

– Fikziozkoak ez diren liburuak:

– Liburuaren edizioarekin zuzenean lotutako gastuak, hala nola diseinua, maketazioa, jatorrizkoaren eta proben zuzenketa, edizioaren koordinazioa, ISBNaren eskaera, inprimaketa edo koadernaketa.

– Publizitatea (kartelak, programak).

Honako gastu hauek ez dira inola ere diruz lagunduko:

– Banku-kontuen interes zordunak.

– Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.

– Prozedura judizialen gastuak.

– Zeharkako zergak, onuradunek berreskuratutako edo konpentsatu ditzaketenean.

– Errentaren gaineko zerga pertsonalak.

– Material inbentariagarriak erostea, gastu arrunterako emandako dirulaguntzak direlako.

– Egile-eskubideak eskuratzeko inbertsio ukiezinak.

Zeharkako kostuak diruz lagundutako proiektuari egotzi beharko dizkio onuradunak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera arrazoiz dagokion zatian, eta, betiere, kostu

horiek proiektua benetan egiten den aldiari badagozkie. Proiekturako zeharkako gastu hauek diruz lagunduko dira jarduera guztietarako inola ere ezingo dute gainditu proiektuaren kostu osoaren % 15:

– Gastu orokorrak (bulegoaren alokairua, administrazioko langileak, mezularitza, bulegoko materiala), proiektuaren kostuaren % 7ko mugarekin.

– Tributuak diruz lagundu ahal izango dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenetan eta inoiz ez dute gaindituko proiektuaren kostuaren % 3. Zeharkako zergak ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

– Diruz lagundutako proiektua egiteko finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak eta peritu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikoak diruz lagundu daitezke, baldin eta diruz lagundutako proiektuarekin zuzenean lotuta badaude eta proiektua behar bezala prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak badira eta inoiz ez proiektuaren kostuaren % 5etik gorako zenbatekoan.

Dokumentala edo edizioa egitearen kostutzat jotzen diren diruz laguntzeko moduko gastuak dekretu honen hurrengo artikuluan aurreikusitako diruz laguntzeko moduko jarduera gauzatzeko aldian egin eta ordaindu beharko dira.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ez da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izango.

8. artikulua.– Erakunde eta pertsona onuradunak.

1.– Ebazpen honen xede diren laguntzak eskatu ahal izango dituzte pertsona juridiko pribatuek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta dirulaguntzaren izaerarekin bat datorren lanbide-jardueraren bat egiten duten pertsona fisikoek, baldin eta deialdi hau argitaratu aurretik EJZn alta emanda badaude eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badaude.

2.– Erakunde zein pertsona eskatzaileek egunean izan beharko dituzte beren zerga-bebebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Baldintza hori betetzen dutela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du kudeaketa-organoak, behar beste aldiz, eta horretarako ez du onuradunen baimenik beharko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) aplikatuz. Nolanahi, erakunde eskatzaileak aukera izango du organo kudeatzaileari Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan adierazitako inguruabarrak bete direla egiaztatzeko agiria zuzenean eskuratzekoa baimena berariaz ukatzeko; halakoetan, erakunde eskatzaileak berak aurkeztu beharko du egiaztigiri hori.

3.– Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotzen diren betekizunak bildu eta 14. artikuluan ezartzen diren betebeharrak bete beharko dituzte erakunde eta pertsona onuradunek. Ondorio horietarako, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko dute.

4.– Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkartek direnean, berariaz adierazi beharko dira, bai eskabidean, bai dirulaguntza emateko ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako egikaritze-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Nolanahi ere, elkarrearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion bete-

beharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituena. Taldea ezin izango da desegin Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

9. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan azaltzen diren dirulaguntzak beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede berberarekin ematen dituen beste batzuekin batera daitezke, betiere gainfinantzaketarik ez badago. Gainfinantzaketarik egonez gero, dirulaguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

2.– Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko deitzen dituen horiekin.

10. artikulua.– Izapidetzea.

1.– Prozedura honen izapide guztiak kontsultatzeko, eskatzeko eta egiteko, bide elektronikoak erabili beharko dituzte erakunde interesdunek.

2.– Eskabideak nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-eko egoitza elektroniko honetan eskuratu daitezke:

https://www.euskadi.eus/subvencion/2020/liburuak_eta_dokumentalak/y22-izapide/eus

3.– Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.eus/micarpeta>

4.– Pertsona fisikoek bide elektronikoak edo aurrez aurrekoak erabili ahal dituzte, deialdi honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiliz gero –aurrez aurrekoa edo elektronikoa–, horrek ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea, halaxe jasotzen baitu Administrazio Elektronikoi buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak.

– Aurrez aurreko bidea: eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Zuzenean Zerbitzuaren bulegoetan, EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako establezimenduetan.

– Bide elektronikoa: goian aipatutako egoitza elektronikoan.

11. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2.– Eskabideak bitarteko elektronikoan bidez aurkeztu beharko dira, euskadi.eus-eko egoitza elektronikoan sartuta. Pertsona fisikoek aukeratu ahal dute bide elektronikoa zein aurrez aurreko bidea.

3.– Erakunde edo pertsona bakoitzak gehienez ere 2 proiektutarako eskatu ahal izango du laguntza, eta horietako bakoitzeko eskabide bat egin beharko du. Gehienez ere bi eskabide egin

ahal izango ditu, gai edo eduki desberdinei buruzkoak. Erakunde batek bi proiektu baino gehiago aurkezten baditu, sarrera-hurrenkeraren arabera dagokion erregistroan aurkeztu diren lehenengo biak baino ez dira kontuan hartuko.

12. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabidea webguneko inprimakian egin beharko da, euskadi.eus-eko egoitza elektronikoan.

2.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakunde edo pertsona eskatzaileari buruzko datuak, bai eta nortasun juridikorik gabeko erakundeetako kide bakoitzari buruzkoak ere.

b) Proiektua gauzatzeko eragingo duen kostuaren aurrekontua, partiden arabera banakatuta. Bertan, proiektua finantzatzeko gainerako bideak zehaztuko dira –halakorik badago–, eta, bestela, erantzukizunpeko adierazpena egin beharko da, proiektua finantzatzeko berezko nahiz kanpoko beste baliabiderik ez dagoela ziurtatzeko.

c) Proiektuaren memoria xehea, non zehaztuko baitira: xedea, metodologia, balizko hartzaileak, lurralde-eremua, egingo diren jardueren egutegia eta genero-ikuspegiari nola helduko zaion. Memorian egiaztatuko da eskatzaileak proiektuari dagokion arloan duen esperientzia.

d) Dirulaguntzaren eskatzaileak ekitaldi fiskal horretan edo aurreko bi ekitaldi fisikaletan beste de minimis laguntzarik jaso ote duen adierazi beharko du, de minimis laguntza honekin Erregelamenduan ezarritako gehieneko muga gainditzen ez dela egiaztatzeko. Aurreikuspen hau nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeetako kide guztiei aplikatu dakieke, eta banakako aitortpenak aurkeztu beharko dituzte.

e) Dirulaguntzara aurkezten diren ikus-entzunezko piezak baloratu ahal izateko, eskatzaileek web gune bat aurkeztu eta horien sarbidea eman ahal izango dute edo pieza aurkeztu dezakete artxibo fisikoa bidaliz.

f) Dirulaguntzara aurkezten diren fikziozkoak ez diren liburuak baloratu ahal izateko, eskatzaileak PDF dokumentua aurkeztu beharko du.

g) Eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen ez direla adierazten duena. Nortasun juridikorik ez duten erakundeen kasuan, aitortpena kideetako bakoitzak sinatu duela ulertuko da.

3.– Era berean, jarduerak balorazio hobea lor dezan, erakunde eskatzaileek egoki irizten dioten dokumentazio osagarria aurkeztu ahal izango da.

4.– Dagoeneko eginda dauden jardueretan, egindako gastuak justifikatzen dituzten agiriak ere aurkeztu beharko dira.

5.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak espedientea osatzeko behar dituen agiri eta azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkio erakunde eskatzaileari, eta, era berean, eskatzaileak emandako datuak egiaztatzeko egin beharreko egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

13. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Erakunde eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritzak egiaztatzen badu dokumentazio hori osatugabea dela

edo daturen bat falta duela, 10 eguneko gehieneko epea emango die erakundeei, antzemandako akatsak zuzentzeko, eta adieraziko die zuzentzen ez badituzte eskaerari uko egin diotela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

14. artikulua.– Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Hauek izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Burua:

– Miren Aintzane Ezenarro Egurbide, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Epaimahaikideak:

– Monika Hernando Porres, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.

– Alaitz Vives Urbieta, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko prentsa-teknikaria.

– Itziar Arrazola Vallejo, Lehendakartzako komunikazio arloko aholkularia.

Idazkaritza:

– Ainhoa Zugasti Bilbao, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko aholkulari juridikoa. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina botoa emateko eskubiderik ez.

2.– Bermatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bileren deialdietan, gai-zerrendetan, bileretan, aktetan eta epaimahai kalifikatzaileak egiten dituen gaineko idazkietan.

15. artikulua.– Balorazio- eta hautaketa-irizpideak.

1.– Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko, lehiaketaren prozedura erabiliko da, eta irizpide haztatu hauek hartuko dira kontuan:

– Proiektuaren potentzial estrategikoa eta egokitasun edo interes soziala. Gehienez, 30 puntu.

• Proiektua deialdiaren xedera zein mailatan egokitzen den. Proiektuaren azalpenean argitasuna baloratuko da, haren izaerari, metodologiari eta antolaketa-alderdiei dagokienez, proposatutako jarduerak dirulaguntzaren xedearekin bat datozen ala ez zehazteko. 20 puntu, gehienez.

• Orain arte jorratu ez diren edo tratamendu publiko txikiagoa izan duten gaiak lantzea, hala nola, gaiaren inguruko ikuspegi berritzailea edo ezezaguna jasotzea. Puntuazio handienarekin baloratuko dira proposamenaren berrikuntza-mailari buruzko informazio nahikoa ematen duten proiektuak. Gehienez, 10 puntu.

– Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, erakundeak antolatzeko duen gaitasuna eta egitura aintzat hartuta. Gehienez, 30 puntu.

• Proiektua aurrera eraman ahal izateko giza baliabideak eta baliabide materialak izatea. Aurrekontua proposatutako jardueraren garapenera egokitzen den baloratuko da, xehakapen xehakatuaren bidez, diru-sarreraren gastuen kontzeptuen zerrenda xehakatuaren eta zalantzarik gabean

oinarrituta. Erakunde eskatzaileak proiekturako erabilitako funts propioen edota beste laguntza batzuetatik datozen baliabide ekonomikoen ekarpena ere baloratuko da. Gehienez, 5 puntu.

- Eskatzailearen ibilbidea antzerako proiektuak aurrera eramaterakoan. Dirulaguntzaren xedearekin lotutako jarduketaren garapenean egiazta daitekeen esperientzia baloratuko da. Azkenik, aurreko ekitaldietan diruz lagundutako jarduerak zehaztasunez eta zorroztasunez betetzea eta justifikatzea baloratuko da. Gehienez, 5 puntu.

- Lanaren kalitate tekniko eta profesionala. Gehienez, 20 puntu.

- Eskatzailearen dibulgaziorako gaitasuna, elkarrekin eta udalekin kolaboratzeko gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko gaitasuna. Beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako jardueraren horien garapenean izandako esperientzia baloratuko da. Gehienez, 20 puntu.

- Zeharkako politikak (euskara eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna) prozesuan txertatzea. Puntuazio handiagoa lortuko dute egindako jarduketaren genero-eragina memorian jasotzeko konpromisoa hartzen duten proiektuek eta emakumeen parte-hartzea bultzatuko duten ekintza positiboak egitea aurreikusten dutenak. Proposatutako jardueran euskara erabiltzea ere baloratuko da. Gehienez, 20 puntu.

Gehienez ere, 100 puntu eman ahalko dira.

2.– Dirulaguntza esleitzeko, eskaerak 45 puntutik gora lortu beharko du, aurreko baremoen arabera.

16. artikulua.– Prozedura ebatzea.

1.– Epaimahai kalifikatzaileak laguntzak emateko proposamena egingo du, eta proposamen horretan erakunde onuradunen lehentasun-ordena ezarri, eta emandako laguntzen zenbatekoa zehaztuko du. Proposamena egiteko, ebazpen honen 5., 6. eta 14. artikuluetan ezarritakoa aplikatu ondoren proiektu bakoitzak lortu duen puntuazioa baloratuko da.

2.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariak, epaimahai kalifikatzaileak egindako proposamena ikusirik, dirulaguntzak esleitzeko prozedura ebatziko du. Ebazpenean laguntzen zenbatekoa jaso beharko da. Ebazpen horrek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiokete Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko buruari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoa betez.

3.– Ebazpen hori sei hilabeteko epean eman eta argitaratu beharko da, deialdi honen argitalpena eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4.– Epe horretan ez bada berariazko ebazpenik eman eta argitaratu, eskabideak ez direla onartu ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako. Edonola ere, ez da eragotziko Administrazioak berariaz ebatzeko duen betebeharra.

5.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta prozeduraren ebazpena berariaz eta banan-banan komunikatzeko beharra bazter utzi gabe, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren ebazpenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da xedapen honen babesean emandako dirulaguntzak jaso dituzten erakundearen zerrenda, zenbatekoak ere adierazita.

17. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzea.

18. artikulua.– Erakunde eta pertsona onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde zein pertsona onuradunek onartu egin beharko dute emandako dirulaguntza. Horretarako, laguntza onartutzat joko da, dirulaguntza emateko ebazpena argitaratu eta ondorengo banan banako komunikazioa, eta hurrengo egunetik 10 eguneko epean erakunde edo pertsona onuradunak idatziz uko egiten ez badio. Dirulaguntza onartzeak berekin dakar deialdi honetan ezarritako arau guztiak betetzea, eta baita beste hauek ere: abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketa parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen, edo hura ordezkatzeko duen araua, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko da aplikatzekoak diren manu guztietan.

2.– Erakunde zein pertsona onuradunek bermatu beharko dute diruz lagunduko diren proiektuek eta horiek bultzatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek zorrotz errespetatuko dituztela 1948ko Adierazpen Unibertsalean jasotako giza eskubide guztiak, eta baita 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunean nahiz 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean jasotakoak ere.

3.– Erakunde eta pertsona onuradunek Dirulaguntzei buruzko arazoaren 17ko 38/2003 Legearen 14. Artikuluan ezarritako onuradunek dituzten betebeharrak berezi eta oinarritzekoak bete behar dituzte.

4.– Erakunde eta pertsona onuradunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte zabalkunde-jarrieretan eta diruz lagundutako proiektuetatik sortutako argitalpenetan.

5.– Erakunde eta pertsona onuradunek hizkuntza eta irudi ez sexista erabiliko dute diruz lagundutako proiektuetatik sortutako ekimenetan.

6.– Diruz lagundu den dokumentalen eta liburuen finantzaketa publikoa dela adierazten duen publizitate egokia egin beharko dute erakunde onuradunek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez. Zehazki, bai dokumentaletan bai argitalpenetan, Gogora Institutuaren logotipoa islatu beharko da, ikusteko moduan.

7.– Emandako dirulaguntza ebaluatzeko, erakunde edo pertsona onuradunek Gogora Institutuari jakinarazi beharko diote zenbat ale saldu diren, liburuen kasuan, eta bistaratze edo ikusleen kopurua, dokumentalen kasuan, dirulaguntza eman eta hurrengo bi urteetan.

8.– Aurreko paragrafoetan jasotako betebeharrak nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeetako kide bakoitzari aplikatuko zaizkio, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako betearazpen-konpromisoak betetz, eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez.

19. artikulua.– Ordaintzeko modua.

1.– Deialdi honen babesean ematen den dirulaguntza honela ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketan, emandako dirulaguntzaren % 75 ordainduko da, dirulaguntza berariaz onartu eta gero, edo ematen dela jakinarazten denetik hamar eguneko epea igarotzean, berariazko uko-egiterik ez bada aurkezten.

b) Bigarren ordainketa egingo da emandako dirulaguntzaren erabilera (hurrengo artikuluan zehazten den bezala) Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritzaren aurrean justifikatu eta gero. Egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoa ordainduko da.

2.– Emandako dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eta pertsona onuradunek hirugarrenen alta hartzeko agiria aurkeztu beharko dute, baldin eta erregistraturik ez badaude edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi badituzte.

20. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Dirulaguntzaren onuradun suertatzen den erakundeak edo pertsonak 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan egindako gastuak eta jasotako diru-sarrerak zehazten eta justifikatzen dituen memoria, ordainagiri eta guzti. Superabitik egon bada, memoriarekin batera dirua itzuli beharko da. Bestetik, ikus-entzuzko produktu amaituaren kopia bat erantsi beharko dute justifikazioan. Saldutako ale kopurua edo tirada, liburuaren kasuan, eta bistaratze edo ikusle kopurua, dokumentalen kasuan zehaztuko dira. Era berean, Gogora Institutuak jabetza intelektualeko eskubideen xede diren entregatutako materialen egin ditzakeen erabilera mugaturako baimenak zehaztuko dira.

2.– Goian aipatutako dokumentazioa, eskaneaturik eta elektronikoki sinatuta aurkeztuko da. Gainera, jarduera dirulaguntza honez gain, fondo propioekin eta beste dirulaguntza edo baliabideekin ordaindu denean, justifikazioan egiaztatu beharko da jarduera bakoitzerako zuzendu den zenbatekoaren jatorria.

3.– Administrazioak bere osotasunean edo laginketa-tekniken bidez beharrezkotzat jotzen duenean eskatu ahal izango da jatorrizko dokumentazioa, eta egoki iritzitako justifikazioak eskatu ahal izango dira, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko ebidentzia arrazoizkoak lortu ahal izateko. Justifikazioak nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-eko egoitza elektronikokoan daude eskura.

4.– Artikulu honetan jasotzen ez denari dagokionez, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. eta 31. artikuluetan araututakoa aplikatuko da. Nolanahi ere, justifikazioa justifikazio-kontu sinplifikatuaren forma hartzen du, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 75. artikuluan (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa) arautzen dena, eta informazio hau jasoko du:

a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioarekin, zenbatekoarekin, jaulkipen-datarekin eta ordainketa-datarekin. Dirulaguntza kalkulaturako aurrekontu baten arabera ematen denez, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, itzulketa ordaintzeko gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horien ondoriozko interesen kasuan ere.

21. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero –dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada–, eta, kasuan-kasuan, edozein erakunde pribatu nahiz publikotatik aldi berean beste laguntzarik jasoz gero, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horretarako, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak aldaketarako ebazpena emango du, eta, bertan, eman diren dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira.

2.– Edozein arrazoi dela-eta diruz lagundutako proiektuak ezin badira eskabidean adierazitako moduan gauzatu, horren berri eman beharko zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari. Hala gertatzen bada eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ezin bada, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariak zehaztu beharko du emandako zenbatekoa itzuli behar ote den, hala badagokio, horretarako hartutako ebazpenaren bidez.

22. artikulua.– Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzea eta laguntza itzultzea.

1.– Baldintzak ez direla bete ulertuko da, honako kasu hauetan:

a) Zegokion egunean aurkeztutako jarduera ikusita, jasotako dirulaguntza ez da, osoki edo zati batean, onartu zen jarduerarako erabili, beste zerbaitetarako baizik.

b) Hautatutako jardueran aldaketak egin dira; salbuespena izango da aldaketok funtsezkoak ez badira eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko titularrak berariaz baimentzen baditu, eskaera arrazoitua egin ondoren.

c) Eskabidean, harekin batera aurkeztutako dokumentazioan edo dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioan bildutako datuetako edozein gezurrezkoa da.

2.– Onuradun erakundeek edota pertsonak artikuluko honen 1. puntua, esleipen-ebazpenean edo deialdiaren ebazpenean ezarritako edozein baldintza edo Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori) eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza jasotzeko eskubidea galduko da, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiarri, berandutze interesekin batera; bestalde, zigorrak ezarri ahalko dira. Hori guztia, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat eginez. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra erregulatzen da, eta dirulaguntzen kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dira.

3.– Honako irizpide hauek ezarri dira dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzea mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

a) Dirulaguntza lortzea, baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz. Itzuli beharreko ehunekoa: % 100.

b) Eskaeraren xedeak erabat ez betetzea. Itzuli beharreko ehunekoa: % 100.

c) eskaeraren xedeak partzialki ez betetzea. Bete gabeko helburuekiko proportzionala.

- d) Hedapen-neurriak ez betetzea. Itzuli beharreko ehunekoa: % 40.
- e) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea. Itzuli beharreko ehunekoa: % 100.
- f) Nahikoa justifikazio ez izatea. Behar bezala justifikatu gabeko zatiarekiko proportzionala.
- g) Onuradun gisa ezarritako beste baldintza batzuk partzialki ez betetzea. Bete gabeko baldintzekiko proportzionala.

Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak azkenean itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko, eta proportzionaltasun-printzipioari erantzuten diote.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan berariaz erregulatu ez den guztian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa ezarriko da. Era berean, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VII. tituluko VI. titulua eta III. kapitulua aplikatuko dira, bai eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko erregulazioa ere.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete interesdunek Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko buruari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbao, 2020ko apirilaren 22a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.